

Balio proposamena

Bezzeroaren eskura jartzen den gailua, sukalde errobot bat da, *su oszilante* bat zehazki. Honek, pil-pil bat, saltsak edota su baxuan eta mugimenduarekin egin behar diren plater mimatuak egiterako garaian sukaldariari eskuak libre uztea ahalbideratuko dio; gainera, sukaldari jaiok ez direnentzako laguntza paregabea da.

“Oscook” gailuak, mugimendua automatizatzeaz gain, mugimendu horrekiko, denborarekiko edota tenperaturarekiko kontrola emango digu. Hala ere, era berean, web orrialdea edo aplikazio propioa erabili ezkerro modu automatikoan ezarri ditzazkegu lehenago aipatutako parametroak.

Gailu hau erakargarria izan dadin, bolumen nahiko txikikoa eta teknologiaz beteta (QR kodigoen irakurketa, pantaila taktilaren erabilera, aplikazio mobilarekin komunikazioa...).

